

# 2011-2012

%100 paper birziklatua



HONDARRIBIKO ESKOLAKO AGENDA 21

# Mugikortasuna

Ama Guadalupekoa ikastetxea, San José-Gurutzearen Alabak ikastetxea, Talaia Hondarribiko Eskola eta Talaia Institutua.



INGURUMENA - AGENDA 21  
HONDARRIBIKO UDALA



ESKOLAKO AGENDA 21  
HONDARRIBIA



HONDARRIBIKO  
UDALA



udalsarea21  
jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea  
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad



INGURUMEN UZAILDE  
PLANTZEN, BERRIKUNTZA  
ETA BERRIKETA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

# PAUSOZ PAUSO, MUGITZEKO MODU OSASUNTUEN ALDE



Hondarribiko eskoletan Eskolako Agenda 21 izeneko hezkuntza programa lantzen dugun 4. ikasturtea izan da aurten goa. 2011/2012 ikasturtean 2.000 ikasle inguruk landu dugun gaia MUGIKORTASUN IRAUNKORRA izan da. Aldizkari honetan zehar aurten emandako pauso nagusiak laburbiltzen dira.

## LAS ESCUELAS A FAVOR DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

Durante el curso 2011/2012 el tema principal tratado dentro del programa educativo de la Agenda 21 Escolar ha sido la MOVILIDAD SOSTENIBLE. Este ha sido el cuarto año en el que los centros escolares de Hondarribia participamos en la Agenda 21 Escolar.

## NOLAKOA IZAN DA PARTE-HARTZEA?

Eskolarteko Foroan hezkuntza programa honetan lanean burubelarri dihardugun eragileen parte-hartzea nolakoa izan den eztabaidatu dugu eta ondorio honetara iritsi gara:



Ikasleak eta eskolako langileak



Irakasleak, gurasoak eta Udala

AURREKO IKASTURTEAREKIN ALDERATUZ, IRAKASLEEN, GURASOEN ETA UDAL ORDEZKARIEN PARTE-HARTZEAREN KALITATEAK BEHERA EGIN DU. IRAKASLE EZ DIREN ESKOLAKO GAINERAKO LANGILEENA, ALDIZ, HOBETU EGIN DA

## DIAGNÓSTICO DE LA PARTICIPACIÓN

En el Foro Interescolar hemos evaluado la calidad de la participación de la comunidad escolar en la Agenda 21 Escolar y, en general, podemos decir que la participación del alumnado y de los trabajador@s (no profesorado) del centro escolar es buena, mientras que la del profesorado, el de los padres y las madres, y el de los responsables municipales es regular (mejorable).





# ZER EGIN DUGU IKASTURTEAN ZEHAR?



## HONAKOAK DIRA IKASTURTE HONETAN ZEHAR ESKOLEK EMAN DITUGUN PAUSO NAGUSIAK

Aurreko ikasturtean sortutako material eta artelanekin hondakinei eta urari buruzko erakusketa bat antolatu genuen Zuloaga Etxean.

Mugikortasun iraunkorraren gaitzak sakontzeko sentsibilizazio ekintza ezberdinak egin ditugu: bideoak, irratsoak, jolasak, Txoko Berdea apaintzea, ...

Eskola zentroan mugikortasunarekin zerikusia duten azpiegitura ezberdinen eta eskolatik gertuen geratzen den eremuaren azterketa egin dugu (autobus geltokiak, espaloiak, oinezkoen gunek, etab.).

Herriko diagnostikoa egiteko, herritarrei mugikortasunari buruzko inkestak egin dizkiegu.

Mugikortasunari buruz ditugun ohiturak ezagutzeko asmoz, ikasturtean zehar galdetegi ezberdinak bete eta lortutako emaitzak gelan aztertu ditugu.

Maiatzaren 24an Eskolarteko Foroa ospatu genuen, ikasturtean zehar egindako lana aurkezteko, eragile ezberdinen partaidetza maila ebaluatzeko eta eskola guztion konpromisoak eta Udalari zuzendutako eskariak adosteko.

Garapen iraunkorrarekin zerikusia duten beste programa batzuetan ere parte hartzen jarraitu dugu (Azterkosta, Ibaialde, ...).

Eskola barruan Ingurumen Batzordea osatu eta ikasturtean zehar partaidetza-organo horren bilera ezberdinak antolatu ditugu.

### RESUMEN DEL CURSO

A lo largo del curso 2011/2012 hemos organizado diversas actividades para profundizar en el tema de la movilidad, tales como:

- Talleres, juegos, exposiciones y concursos.
- Análisis de la situación de las infraestructuras relacionadas con la movilidad más próximas a los centros escolares.
- Encuestas a la población sobre necesidades del municipio y hábitos relacionados con la movilidad.
- Reuniones de los órganos de participación (Comisión de Medio Ambiente del centro, Foro Interescolar, etc.).
- Participación en otros programas educativos de contenido ambiental.



# HERRIKO DIAGNOSIAREN ONDORIOAK

**IKASTURTEAREN 2. HIRUHILEKOAN IKASLEAK KALERA IRTEN GINEN MUGIKORTASUNARI BURUZKO HONDARRIBIKO EGOERA AZTERTZERA. HORRETARAKO, ESKOLA BAKOITZAK AZTERTU DITUEN AUZOETAKO HERRITARREI INKESTAK EGIN DIZKIEGU. HAUEK DIRA EMAITZA NAGUSIAK:**

Hondarribiko bidegorri sarea osatu gabe dago. Azken urteetan bizikletarentzako bide zati berriak eraiki diren arren, lotura falta antzeman da auzoen arteko joan-etorrietarako.

Irun eta Hondarribia artean bidegorria eraiki gabe dago.

Hondarribia eskualdez kanpoko herriekin autobus bidez lotzerako orduan, herriak zenbait hutsune ditu hainbat herritarren esanetan.

Eskualde barruko garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko beharra adierazi dute zenbait herritarrek (ordutegiak, linea kopurua eta horien ibilbidea, ...).

Herrian zarata gehien eragiten duten motordun ibilgailuak motorrak dira herritar gehienek ustez (ondoren, autoak eta azkenik, autobusa).

Herriko espaloiak eta oinezkoen guneak orokorrean egoera onean aurkitzen diren arren, toki batzuetan oinezkoen joan-etorriak oztopatzen dituzten elementuak edo trabak badira.

Herritar gehienek autobus geltoki bat dute etxetik 10 minutu baino gutxiagora.

Herritar gehienek ustez, bus geltokiak egoera onean edo nahiko onean aurkitzen dira.

Oraindik badago herritarren zati bat normalean erosketak egitera herritik kanpora joaten dena eta, horretarako, autoa erabiltzeko ohitura duena.

Erosketak herrian bertan egiten dituzten herritarren 1/3, gutxi gorabehera, oinez joaten da saltokietara, beste 1/3 autoz mugitzen da eta gainerakoak bizikletan, motorrean, busean edo modu konbinatuetan desplazatzen dira.

Lanera autoan joaten direla erantzun dutenetatik (herritarren erdia gutxi gorabehera), ia denek adierazi dute prest egongo liratekeela beraien lankideekin autoa partekatzeko.



## CONCLUSIONES DEL DIAGNÓSTICO

Para elaborar el diagnóstico municipal, hemos realizado una serie de encuestas a la población. Estas son algunas de las conclusiones:

La red de carriles-bici del municipio está incompleta. Asimismo, no hay conexión entre los carriles-bici de Hondarribia y la red ciclista de Irun.

Hay margen de mejora en la oferta de transporte público del municipio, de la comarca, así como de las líneas de autobús que conectan Hondarribia con los municipios de fuera de la comarca.

Las motos son el modo de transporte motorizado que mayor ruido genera.

Aunque las aceras y espacios peatonales de Hondarribia se encuentran en buen estado, en algunos puntos del municipio hay elementos que obstaculizan los desplazamientos realizados a pie.

La mayoría de la población dispone de una parada de autobús a menos de 10 minutos de su casa. En general, las paradas de bus están en buen estado.

La mayoría de personas que van al trabajo en coche están dispuestas a compartirlo para dicha finalidad.

# GURE KONPROMISOAK

---

## ESKOLARTEKO FOROAN ADOSTUTAKO LEHENTASUN ALTUKO ETA ERTAINEN KONPROMISOAK HAUEK DIRA

### **Lehentasun altukoak**

Herrian zehar oinez egiten ditugun joan-etorrietan bidean zehar topatutako seinaleak errespetatuko ditugu (zebrabi-deak, semaforoak, ...).

Eskolara autoz baldin bagoaz, gurasoak animatuko ditugu beste guraso batzuekin autoa partekatuzera (horrela, autoan ikasle bat baino gehiago joango gara eta kutsadura gutxiago sortuko dugu).

Eskolako autobusean eta baita garraio publikoko beste ibilgailuetan guztion segurtasunarekin zerikusia duten oharrak eta aginduak errespetatuko ditugu.

Oinez goazenean, bidegorritik ibili beharrean espaloitik joango gara, bizikleta edo patinean ibiltzen direnei trabarik ez egiteko.

Gauetz bizikleta hartu behar badugu, argia jarri eta bestelako segurtasun neurriak kontuan izango ditugu.







## PRINCIPALES COMPROMISOS DE LOS CENTROS ESCOLARES

Tras la labor realizada a lo largo del curso, estos son los principales compromisos adquiridos:

- En los desplazamientos a pie, respetaremos la señales del camino.
- Si nos traen a la escuela en coche, animaremos a nuestros padres y nuestras madres a que compartan el coche con otras familias.
- Respetaremos los avisos y las instrucciones de seguridad cuando viajemos en el bus del centro escolar así como en otros medios de transporte público.
- Cuando nos movamos a pie, no invadiremos el carril bici.
- Pondremos la luz nocturna y tendremos en cuenta el resto de medidas de seguridad en los desplazamientos en bici que realicemos de noche.
- Daremos los pasos necesarios para poner en marcha el proyecto del Camino Escolar.
- Cuando no podamos movernos a pie o en bici, trataremos de utilizar el transporte público en los desplazamientos realizados fuera del municipio.
- En las actividades extraescolares, trataremos de que nuestros padres y nuestras madres compartan el coche.
- Incentivaremos los desplazamientos en bici o en patinete para acudir a la escuela.

### Lehentasun ertaina dutenak

“Eskolako Bidea” proiektua martxan jartzeko, eskola komunitatea osatzen duten eragile ezberdinak informatu eta ekimenean parte hartzeko beharrezko pausoak emango ditugu.

Inguruko herrietara bidaiatzeko, oinez edo bizikletaz joateko aukerarik ez dugunean, garraio publikoa erabili dezakegun aztertu eta, ahal izanez gero, hura erabiliko dugu.

“Eskola Kirola” programako ekintzak antolatzen diren lekuetara joatean, gurasoek autoa partekatzeko ahaleginak egingo ditugu.

Ikasle eta irakasleek eskolara bizikletaz etortzeko orduan bizikletak eta patineteak aparkatzeko lekuak izateko erraztasun gehien jartzen saiatuko gara (udala eta beste instituzioekin elkarlanean).



# ZER ESKATU DIOGU UDALARI?

IKASTURTEAN ZEHAR EGINDAKO LANAREN ONDORIOZ, MUGIKORTASUN IRAUNKORRARI BURUZKO DIAGNOSIA OSATU DUGU ETA BERTATIK ERATORRITAKO ONDORIOAK KONTUAN HARTUZ, HAINBAT ESKAERA AURKEZTU DIZKIOGU

## BIDEGORRIAK

- 1) Herriko bidegorri sarea osatzea, auzoen arteko joan-etorriak ere bidegorritik atera gabe egin ahal izateko (ezinezkoa den puntuetan, bizikleta erabiltzaileen segurtasuna bermatzen duten neurriak hartzea –adibidez, herriko zenbait errepideetan autoen abiadura mantsotzeko baliabideak bideratuz-).
- 2) Gauetz ere bidegorrietan dabilzan herritarren segurtasuna bermatzeko, sare osoan argiztapen publikoa egokia dela bermatzea.
- 3) Hondarribia Irunekin bidegorri bidez lotzeko beharrezko pausoak aurrera eramatea.
- 4) Herriko auzoetan bizikleta aparkalekuak edo heldulekuak jartzeko toki aproposak bilatzea eta behar den tokietan azpiegitura hori eraikitzea (baita eskoletan edo eskoletatik gertu ere).
- 5) Eraikita dagoen bidegorri sarean aurki daitezkeen oztopoak edo gabeziak antzeman eta horiek konpontzea.













## GARRAIO PUBLIKOA

- 1) Ahal den bus geltoki gehienetan estalpea jartzea (markesinak bus zutabeen ordez).
- 2) Hondarribia eskualdeko gainerako herriekin nahiz eskualdetik kanpoko herriekin lotzeko dagoen garraio publikoko eskaintza hobetzeko neurriak aztertu eta horiek ezartzea (autobusaren egungo eskaintza hobetuz eta beste garraio publikoko alternatiba batzuk ere aztertuz –adibidez, tranbia-).
- 3) Herriko nahiz eskualdeko garraio publikoko eskaintza koordinatzeko bideak martxan jartzea (adibidez, eskualdeko Mugikortasun Mahaiko bileretan), garraio publikoko eskaintza herritarrentzat ahalik eta eraginkor eta erakargarriena izan dadin.



## SOLICITUDES AL AYUNTAMIENTO

Tras el trabajo realizado durante el curso escolar, hemos completado el diagnóstico en torno a la movilidad sostenible, y le hemos transmitido al Ayuntamiento las deficiencias y las mejoras necesarias derivadas del mismo, para que analice y ponga en marcha las siguientes propuestas (resumen de las principales solicitudes presentadas):

-  Completar la red de bidegorris del municipio.
-  Garantizar que el alumbrado público cercano a la red ciclable de Hondarribia es adecuado.
-  Dar los pasos necesarios para conectar Hondarribia e Irun mediante carriles bici.
-  Siempre que sea posible, garantizar que las paradas de autobús tienen marquesina.
-  Poner en marcha las medidas necesarias para mejorar la oferta de transporte público (del municipio, de la comarca, y las conexiones de Hondarribia con municipios de fuera de la comarca).
-  Analizar la posibilidad de construir más zonas peatonales.
-  Realizar las actuaciones necesarias para mejorar las deficiencias detectadas en algunas aceras del municipio.
-  Analizar los efectos de las vías de una sola dirección y de las rotondas en el tráfico rodado.
-  Poner en marcha las medidas necesarias frente a los atascos que se producen en horas punta en barrios y calles concretas del municipio.
-  Organizar actividades de educación vial en los centros escolares.
-  Celebrar anualmente la Semana de la Movilidad Sostenible.
-  Analizar el uso del coche en Hondarribia y difundir entre la ciudadanía buenas prácticas sobre movilidad sostenible.



4) Herrian kokatutako bus markesinak egoera onean mantentzeko beharrezko jarraipen lanak egitea eta geltoki guztietan zerbitzuari buruzko informazioa badagoela bermatzea.

## HERRIKO ESPALOIAK ETA OINEZKOEN BIDEAK

1) Hondarribian oinezkoen gunek gehiago eraikitzeko aukerak aztertu.

2) Herriko zenbait kaletan dauden espaloien egoera hobetzeko neurriak hartu (espaloiak behar den tokietan zabalduz, hautsita dauden eremuak konponduz, behar den tokietan garaiera jaitsiz, etab.).

3) Oinezkoen joan-etorriak oztopa ditzaketen trabak ezabatu edo konpontzeko neurriak hartu (gaizki aparkatutako motordun ibilgailuak adibidez).

## MOTORDUN IBILGAILU PRIBATUAK

1) Noranzko bakarreko kaleek eta biribilguneek trafikoan duten eragina aztertzea. Hau da, askotan, autoz edo motoan leku batetik bestera joateko ibilbidea zuzenean egin beharrean, puntu batera joatera eta gero atzera egitera behartuta dago herritarra. Horrek zirkulazio denbora luzatu egiten du, erregai kontsumoa handituz eta Berotegi Eftukiko Gasen igorpena handituz.

2) Herriko zenbait auzotan edo eremuetan (bidegurutzeak, esaterako) eta eguneko puntako orduetan sortzen diren trafiko ilaren arazoari aurre egiteko neurriak ezartzen jarraitzea.

3) Autoa partekatzeak aukerak handitzeko, Hondarribiko Udalak laguntza programa edo ekimenen bat aurrera eraman ote daitezkeen aztertzea.

4) Batez ere motorra duten zenbait herritarrek eragiten duten zarata ekiditeko beharrezko neurriak aztertu eta behar den puntuetan horiek martxan jartzea.

## MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

1) Eskoletan berriz ere bide-heziketako saioak antolatzea, mugikortasun iraunkorrari buruzko irizpideak ere barneratzen dituen.

2) Urtero (irailean) Udalak Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat egitea.

3) Autoaren erabilera aztertu eta mugikortasun iraunkorraren inguruko aholkuak herritarren artean zabaldu, besteak beste, erosketak egiterako orduan autoaren aurrean erabili daitezkeen bestelako garraiobideak sustatuz (busa, bizikleta, oinez, ...).

4) Eskolek hurrengo ikasturtean mugikortasun iraunkorraren gaian sakontzen jarraituko dutenez, Eskolako Bide Seguruak martxan jartzeko pausoak ematea ("Oinez Eskolara" ekimena). Horretarako, eskolek eta Udalak elkarlanean aritzea proposatzen dugu.

5) Eskolara oinez joateko bide seguruak diseinatzen hasteaz gain, eskolara modu seguruan bizikletan edo patinetean joateko ekimenak ere aztertzea, Hondarribiaren egoerara egokitu daitezkeenak.

6) Autoen gidariak abiadura mugak errespetatzeko ezarri diren neurriekin aurrera jarraitu.

